



## **SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO ETA UGT MOBILIZAZIOEN DINAMIKA HASTEN DUGU OSAKIDETZAN, NEGOZIAZIOA ESKATZEKO ETA GURE OSASUN PUBLIKOA BABESTEKO**

Osakidetzaren demokratizazioak Mahai Sektorialaren blokeoa gainditu eta langileen ordezkariekin benetako negoziazioa eta edukiak bultzatzea eskatzen du.

**SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuok**, Osasuneko Mahai Sektorialeko kideek, urteak daramatzagu salatzen Osakidetzak Mahai Sektorialean ez duela negoziatzen, Osakidetzak nahi duena eta nahi duenean bakarrik tratatzen dela.

Egoera horrek, hobera egin beharrean, okerrera egin du, eta erabateko blokeora eraman gaitu. Eta hori guztia gure osasun publikoaren narriadura ukazina den une batean, bai profesionalentzat, bai herritarrentzat.

Urte hasieran, sindikatuok Mahai Sektorialetik altxatu ginen, eta uda ondoren, egoerak berdin jarraitu du. Egoera desblokeatzeko asmoz, Osakidetzako Zuzendaritza bi aldiz deitu dugu LHKren bilera batera, baina ez da bertaratu. Joan den abenduaren 7an, sailburuarekin bildu ginen, eta berriro ere konpromisoak hartzeko eta egoera bideratzeko borondatea hutsaren hurrengoa da, eta inposaketaren bidearen aldeko apustua egin zen.

Langileak eta herritarrak nazkatuta daude, eta premiazko konponbideak behar ditugu, gure osasun publikoaren narriadurak eragindako egiturazko arazo larriei aurre egiteko, urteak baitaramatzate salatzen. Horregatik, mobilizaziora deitzen zaituztegu, guztion artean hori lortzeko.

Zalantzarik gabe, barne-demokrazia beharrezkoa da, Osakidetzan bertikaltasuna eta inposizioa ezabatzea. Mahai Sektorialeko sindikatuok azpimarratu nahi dugu Osakidetzaren demokratizazioak Mahai sektorialaren blokeoa gainditu eta langileen legezko ordezkariekin benetako negoziazioa eta edukiak bultzatzea eskatzen duela.

Eusko Jaurlaritzak Osakidetzan 100 profesional baino gehiagori irekitako prozesu parte-hartzailea bultzatzeaz hitz egiten du. Gogorarazten dizuegu Osakidetzan 37.000 langile baino gehiago gabela, eta, **beraz, benetako parte-hartzea sustatu nahi duen edozein prozesuk askoz ere kopuru handiagoa izan behar duela, kategoria guztiak, lurralde guztiak eta estamentu guztiak ordezkatzeko dituen.**

Bien bitartean, lan-prekarietateak gure osasun publikoaren arazo handienetako bat izaten jarraitzen du: behin-behinekotasun-tasa %50etik gorakoa da, erosteko ahalmenaren galera %20tik gorakoa da hamarkada batean, lanaren gainkarga sistematikoa da, langile gutxi daude, etab. Aldi berean, murrizketak mantentzen dira, hala nola Deustuko, Zumarragako edo San Martingo EAGetan, Santiago Ospitaleko larrialdietan eta Basurtuko bihotzeko kirurgia ixteko proiektuan. Eta murrizketa berriak planteatzen dira Lehen Mailako Arretan udako Gabonetarako, baita lan-baldintzetan ere, hala nola Lanbide Garapenean aplikatu nahi den murrizketa erradikal eta justifikaziorik gabea. Osakidetzako kategoria guztietako eta hiru lurraldeetako arazoan aurrean gaude.

Lehenengo urrats gisa, **Osakidetzako lantoki guztietan kontzentrazioak deitu nahi dizkizuegu datorren ostegunean, abenduaren 22an, 11: 00etan ospitale guztietan eta 13:00etan lehen mailako arretako zentro guztietan.**

**22an MUGI ZAITEZ ZURE ESKUBIDEEN ALDE!!!**